

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Irrati Telebista
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa
(EITB) eta mendeko diren sozietateak**

**Ente Público de Derecho Privado
Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca
(EITB) y sus sociedades dependientes**

2012





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.1.1 Langileen kontratazioa	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	11
III.1 Kontratazioa	11
III.2 Langileria.....	11
III.2.1 Burutzak	11
III.2.2 Merkataritza kontratuak	12
III.2.3 Gauzazko ordainsariak	12
III.3 Aurrekontuak	12
III.3.1 Aurrekontuaren mugaketak.....	12
III.4 Beste batzuk	12
III.4.1 Hornitzaileei ordainketak	12
IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA	13
IV.1 EITB eta taldeko sozietateen kontu bateratuak	13
IV.2 EITBren eta taldeko sozietateen banako kontuak.....	15
IV.3 EITB eta taldeko sozietateen aurrekontu likidazioa.....	20
ALEGAZIOAK	23
ABREVIATURAS	31
I. INTRODUCCIÓN.....	33



II. OPINIÓN.....	35
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	35
II.1.1 Contratación de personal	35
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	35
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	37
III.1 Contratación.....	37
III.2 Personal.....	37
III.2.1 Jefaturas	37
III.2.2 Contratos mercantiles	38
III.2.3 Retribuciones en especie	38
III.3 Presupuestos.....	38
III.3.1 Limitaciones presupuestarias.....	38
III.4 Otros.....	38
III.4.1 Pagos a proveedores.....	38
IV. CUENTAS ANUALES Y LIQUIDACIÓN DE PRESUPUESTOS	39
IV.1 Cuentas Consolidadas de EITB y Sociedades del Grupo.....	39
IV.2 Cuentas Individuales de EITB y Sociedades del Grupo	41
IV.3 Liquidación de Presupuestos de EITB y Sociedades del Grupo.....	46
ANEXOS	49
A.1 Naturaleza y normativa aplicable.....	49
A.2 Gastos de personal y plantillas.....	50
A.3 Producción.....	51
A.4 Contratación.....	52
A.5 Garantías prestadas	53
ALEGACIONES	55



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EITB	Euskal Irrati Telebista Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa
EITB SAU	Eusko Irratia, SA Pertsona bakarreko sozietate anonimoa
ETB, SAU	Euskal Telebista, SA Pertsona bakarreko sozietate anonimoa
EITBNET, SAU	Eitbnet, SAU Pertsona bakarreko sozietate anonimoa
EJ	Eusko Jaurlaritza
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
6/2011 Legea	6/2011 Legea, ekainaren 23koa, EAEn 2012rako aurrekontuei buruzkoa.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa
AKBP	Administrazio Klausula Berezien Pleguak
GI SAU	Gasteiz Irratia, SA (Pertsona bakarreko sozietate anonimoa)
GSDN	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege-Dekretua, azaroaren 14koa, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina.
EAETB	LD 1/1994 LD, irailaren 27koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Testu Bategina eta 2011ko ekainaren 29tik aurrera, 1/2011 LD, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen gaietan indarrezko legezko xedapenen Testu Bategina onesten duena.
TVCP/HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak ezarritakoari jarraiki, Euskal Irrati Telebista/EITB Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko dituen Sozietateen Urteko Kontuak fiskalizatu ditu, 2012ko ekitaldiari dagozkionak.

2012ko ekitaldiaren fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatu ditu:

- Legezkoak: Ondasun eta zerbitzuen erosketan, langilerian eta ekonomia-finantzaren kudeaketan indarreko legeria bete dela egiaztatzea.
- Kontularitzakoak: Aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta eragimenari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Fiskalizazio lana sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu da eta kasu bakoitzean beharrezko iritzitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia defendatzeko, baita kanpoko auditore batek egindako urteko kontuen auditoria euskarritzen duten lan paperen azterketa ere.

EiTB Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak sortu zuen eta berezko nortasun juridikoa du. Autonomia Estatutuaren 19. artikulua xedatzen duenaren arabera, eskuordetu ziren eskumenen esparruan Autonomia Erkidegoari dagozkion egitekoak betetzen ditu, irrati eta telebista zerbitzuen titular den aldetik.

Irrati-telebistako zerbitzu publikoen kudeaketa horretarako sortutako sozietateen bitartez gauzatzen da: Euskal Telebista, SA/ETB, SAU, Eusko Irratia, SA/EI, SA, Gasteiz Irratia, SA/GI, SA eta Eitbnet, SAU Horrezaz gain, 2012ko abenduaren 31n EITBk honako partaidetza hauek ditu: Vilau Media, SLn, %25; Expressive Media Proyects, SLn % 24,62; Media For Future, SLn % 15,74; eta Kulture Klub Euskadi, SLn % 22,73.

EiTB eta mendeko sozietateak, horien akzioen titular bakar dena, EA Eren Aurrekontu Orokorren kontura eta gauzatzen dituzten jardueretatik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatzen dira, 5/1982 Legearen 45 artikulua agintzen duenaren arabera. Bestetik, Eitbnet, Estatutuen 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarreren bidez finantzatuko da.



2012rako kontratu-programa berria izenpetu da 2012ko ekainaren 21ean, aldez aurretik 2011ko abenduaren 28ko jarraipen batzordeak eta 2012ko maiatzaren 22ko EJRen Gobernu Kontseiluak onartu dutelarik. Kontratu-programa honek, aurrekoek bezala, Erakundeak gauzatu beharreko irratitelebistako zerbitzu publikoaren edukiak definitzen ditu; irratitelebistako zerbitzu publikoa emateko dituen konpromisoak, zerbitzua kudeatzekoak; eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpenen bitartez finantzaketa egonkorra definitzen du, berariazko jarduerak, zerbitzuen prestazioak eta Erakundearentzat eta bere Kudeaketa Sozietateentzat aktibo erreal eta finantzazkoetan egindako inbertsioek eragindako ustiaketa gastua berdintzeko.

Txosten hau idatzi dugun datan ez da 2013rako inongo kontratu-programarik izenpetu eta ez da horren jarraipen batzordea elkartu. Kontratu-programaren 7. klausulan ezarritakoari jarraiki, indarraldia 2013ra luzatu da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1.1 LANGILEEN KONTRATAZIOA

1. Erakundearen eta bere sozietateen -ETB, SAU eta Eitbnet, SAU- aldi baterako lan-kontratuko langileak kontratatzeko lehenagotik zegoen lan-poltsa erabili da, kideen merezimendu eta gaitasunak sailkatzen ez dituen; horrek ez du bermatzen 5/1982 Legean aurreikusitako merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen direnik (ikus A.2). Txosten hau idatzi dugun datan deitutako lanpostuen % 95ari dagokionez, 2010ean abiarazitako EEP amaitu da, lan poltsa hori gaurkotzen duena.
2. 5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duen 4/1996 Legearen 1.2 artikulua zuzendari nagusiari eskumena ematen badio ere “erakunde publikoko eta bere sozietateetako zuzendaritza-langileak irizpide profesionalak baliatuta izendatzeko, aldez aurretik izendapen horien berri administrazio kontseiluari emanetz”, egia da ere zuzendaritzako langilearen figura ez dagoela zehaztuta.

Alabaina, 5/1982 Legearen 47. artikulua dio Erakunde Publikoko eta mendeko dituen Sozietate Publikoetako langileria laneko legerian xedatutakoak arautuko duela (47.1 art.), nahiz era berean dioen “Erakunderako eta bere Sozietateetarako langileen hautaketa deialdi publiko bidez egingo da eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemei jarraiki” (47.2 art.).

130/1999 Dekretuari jarraiki, EITBk “Goi Karguetan” lau pertsona ditu izendatuak eta gainera, kargu horietarako Goi Zuzendaritzako kontratua derrigor baliatu behar dela ezartzen du.

2012ko ekitaldian zuzendaritzako lanpostu funtzionaletan 3 pertsona izendatu dira “profesionaltasunaren” kontzeptua baliatuta; kontzeptu hori, arestian aipatutako Erakundea sortzeko legearen 16. artikulua aurreikusten du, 4/1996 Legeak aldarazitakoa. Hiruek ere ez zuten lehenagotik erakundearekin inongo kontratu loturarik eta ez daude Goi Kargudun modura bereizirik; hala eta guztiz ere, lan kontratu finkoekin kontratatuta dira eta horrek 5/1982 Legearen 47. artikulua urratzen du.

Epaitegi honen ustetan, Erakundeak eta mendeko sozietateek 1etik 2ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete dute 2012ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Erakundearen eta mendeko dituen sozietateen finkatutako urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan adierazi dute ondarearen, 2012ko abenduaren 31n finantza egoeraren, ekitaldian eragiketen emaitzen, ondare garbian aldaketan eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion esku-diruzko fluxuen irudi fidela.



Gure iritzian eraginik izan gabe, Euskal Irrati Telebista/EITB Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa sortzen duen 5/1982 Legearen 45 artikulua gainera erakarri nahi duzu, zeinak dioen erakundea eta mendeko dituen sozietateak, horien akzioen titular bakar dena, EAEren Aurrekontu Orokorren kontura eta gauzatzen dituzten jardueretatik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatu direla. Bestetik, Eitbnet, SAU, bere Estatutuen 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarreraren bidez finantzatu da. Bestetik, aurrez aipatutako Legearen 44. artikulua agintzen du, Erakundea eta erakunde kudeatzaile eta eskumendekoen aurrekontuak kaltetu gabe, finkatutako aurrekontu bat zehaztu da, uneko edo behin betiko defizitak saihestearren eta finkatutako aurrekontu honetan barne hartutako erakundearen superabitaren bidez horiei aurre egitea bideratzearen.

Urteko kontuak abian den enpresaren printzipioaren baitan egiten dira, Administrazioaile Bakarrak jardueraren jarraipenaz inongo zalantzarik ez duelako, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoa izaki eta indarrean den kontratu-programatik eratorritako finantzaketa zuzena duelako; bada, etorkizunean behar hainbateko zenbatekoekin eusten badio, aktiboak gauzatzeko eta finantza obligazioei eta beste era batekoei aurre egiteko jarraikortasuna bermatuko du, honekin baterako 2012ko abenduaren 31n finkatutako balantzean erregistraturik dauden zenbateko eta epeen arabera.

Eusko Jaurlaritzatik jasotako ekarpenek ez dituzte ibilgetuko amortizazioak betetzen, izan ere ustiaketa defizita eta inbertsioak



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 KONTRATAZIOA (IKUS A.4)

350.000 euroren zenbatekoan esleitutako espediente lean, kontratua esleitzen duen ebazpenak ez ditu hautatutako eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak arrazoitzen, SPKLTBren 190. artikulua agintzen duen moduan.

III.2 LANGILERIA

2012ko abenduaren 31n indarrean zegoen plantillan berriazko araudiari meneratutako 3 “goi karguez” gain, beste 117 pertsona ageri dira “zuzendaritzako langile” modura; horietatik, 2012an sartutako 3 eta lehenagoko urteetako 51, aurretik EITB taldearekin kontratu harremanik ez zuten pertsonak dira, deialdi publikorik gabe eta 5/1982 Legearen 47. artikulua xedatzen dituen merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemen babesik gabe kontratatu direnak; halaber, beste 63 pertsona, guztiak 2012 baino lehenago sartutakoak, Taldeko langile finkoak dira, izendapen askearen prozedura baliatuta eskuratu dutenak lanpostua, 4/1996 Legearen 1.2 artikuluari jarraiki, 5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duena.

Aintzat hartuta hainbat komunikabideren jabe den Erakunde honek duen berezitasuna kanpotik datorren langileriaren kontratazioan egungo egoera ebazteko eta zuzendari nagusiak lan legeria betetzeko eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemei jarraiki deialdi publikora meneratzeko eskumenak bateratzeko (Erakundearen Legearen 16. eta 47. artikulua), gomendagarria litzateke zuzendari nagusiak organigrama aldaketa onartzeko proposamena egitea Administrazio Kontseiluari, zeinetan “goi kargu” edo baliokidetzat jotako lanpostuak zehaztuko diren, zentzuzko kopuruan, 130/1999 Dekretuaren ondorioetarako eta EITB taldearen plantillakoak izan gabe, betiere profesionaltasun irizpideei jarraiki, eta zuzendari nagusiaren agintaldiari lotuta.

III.2.1 BURUTZAK

Ez da inongo irizpide objektiborik aurreikusi burutza lanpostuak balioztatu eta ordaintzeko eta zuzendaritzaren esku geratzen da soldata balioztatu eta ematea. Jokamolde honek ez ditu agerian uzten lanpostuaren ezaugarriak, ez eta egindako balorazioa ere.

Beharrezkoa da burutzako lanpostuen ezaugarriak zehaztea eta horiek balioztatzeko irizpide objektiboak finkatzea, eskagarriak diren betekizunen arabera, hala nola, titulazio taldea, ezagutza teknikoak, zailtasuna, erantzukizuna eta baliagarritasuna.



III.2.2 MERKATARITZA KONTRATUAK

Merkataritza kontratu bitartez berariazko lanak egiteko langile profesional eta/edo artistaren kontratazioan, ia beti programak aurkezteko edo horiek prestatu, editatu eta gauatzeko, ez dago inongo hautaketa prozedurarik finkaturik eta ETB, SAU eta EI, Saren programazioko arduradunen eta zuzendaritzaren irizpidearen arabera gauzatzen da hainbat probaren bitartez; ez da, ordea, hautaketarako baliatutako profil eta irizpideen ebidentziarik jasotzen. Gomendagarria litzateke prozedura normalizatua onestea kontratu mota honetan egin beharreko proba eta irizpideekin; baita, egindako kontratazioak eta horien baldintzak justifikatuko dituzten emaitzen agiri bidezko ebidentzia ere jasotzea.

III.2.3 GAUZAZKO ORDAINSARIAK

Langileei ondasunak erosteko emandako maileguen gauza bidezko ordainketak ez dira horrela aitortzen NUIZ ondorioetarako.

III.3 AURREKONTUAK

III.3.1 AURREKONTUAREN MUGAKETAK

Berebat, inbertsioetan EAETBk ezartzen duen aurrekontu muga gainditu da, 293.242 euroan 4 sozietateen multzoari dagokionez, nagusiki, euskal zinemarekiko konpromisoei aurre egiteko beharrak eraginda, ekainaren 7ko 22/99 legea betez.

III.4 BESTE BATZUK

III.4.1 HORNITZAILEEI ORDAINKETAK

Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen Xedapen Gehigarri 3.ak eskatutako informazioari dagokionez, merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, 2012ko urtean legezko epea gainditu duen hornitzaileei egindako ordainketen zenbatekoa 29,5 milioi eurorena izan da, guztira ordaindutakoaren % 25,25 eta haztatutako batez besteko ordainketa epea 24 egunean gainditu da. Bestetik, 2012ko abenduaren 31n EITB taldeko hornitzaileei ordaintzeke zegoen saldotik 483.647 euroren zenbatekoak (horietatik, 352.806 euro ETB, SAUri dagozkio), legeak horretarako finkatzen duen legezko 75 eguneko epea baino gerorapen luzeagoa zeukan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

IV.1 EITB ETA TALDEKO SOZIJATEEN KONTU BATERATUAK

Hona hemen balantzea, galera-irabazien kontua, ondare garbian aldaketen egoera eta eskudiruzko fluxuen egoera, 2012ko abenduaren 31n bateratuak eta auditatuak:

BATERATUTAKO EGOERA BALANTZEAK			Euroak milakotan		
AKTIBOA	2012	2011	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2012	2011
AKTIBO EZ ARRUNTA	55.516	82.456	ONDARE GARBIA	71.557	98.589
Ibilgetu ukiezina.....	8.529	9.074	Funts propioak.....	58.004	84.376
Ibilgetu materiala.....	46.853	52.472	Funts soziala.....	203.219	222.189
Taldeko eta elkart. enpresetan e/luz. inber.	46	153	Bateratutako soziet. erretserbak.....	133	(938)
Finantza inbertsioak e/luz.....	88	20.757	Baliokidetzan jarritako soziet. erretserbak.....	13	147
AKTIBO ARRUNTA	47.805	57.436	Aurreko ekitaldietako ondorioak.....	(137.982)	(129.285)
Izakinak.....	18.607	19.181	Soziet. nagusiarri egotzitako ekitald. emaitz. .	(7.379)	(7.737)
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt	17.508	20.412	Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.	13.553	14.213
Taldeko eta elkart. enpresetan e/lab. inber.	370	370	PASIBO EZ ARRUNTA	985	1.310
Finantza inbertsioak e/lab.....	28	66	Zorrak eta aldizkakotzea e/luz.....	985	1.310
e/lab. aldizkakotzeak.....	52	304	PASIBO ARRUNTA	30.779	39.993
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz.	11.240	17.103	Zuzkidurak eta zorrak e/lab.....	2.680	1.750
			Merkat. hartzek. & ordaintz. b.kontu batz. .	27.774	37.918
			e/lab. aldizkakotzeak.....	325	325
AKTIBOA GUZTIRA	103.321	139.892	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	103.321	139.892

BATERATUTAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA		Euroak milakotan	
	2012	2011	
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	15.963	23.753	
Izakinen bariazioa.....	(875)	2.252	
Enpresek euren aktiborako egindako lanak.....	325	297	
Hornidurak.....	(43.677)	(61.873)	
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	121.695	136.935	
Langileria gastuak.....	(54.140)	(60.592)	
Bestelako ustiapen gastuak.....	(38.750)	(41.469)	
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(12.683)	(14.037)	
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte.....	5.473	6.792	
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza.....	-	-	
USTIAKETAREN EMAITZA	(6.669)	(7.942)	
Finantza sarrerak, finantza gastuak eta truke aldeak.....	(614)	303	
EMAITZA FINANTZARIOA	(614)	303	
Baliokidetasunean jarritako sozietateen mozkinetan (galeretan) partaidetza.....	(97)	(98)	
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(7.380)	(7.737)	
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	
EKITALDIKO EMAITZA BATERATUA	(7.380)	(7.737)	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BATERATUTAKO ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA BATERATUAK	Euroak milakotan	
	2012	2011
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(7.380)	(7.737)
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak	4.800	4.840
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira	(5.473)	(6.793)
AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTU BATERATUAK GUZTIRA	(8.053)	(9.690)

B) ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA BATERATUAK GUZTIRA

	FUNTS	AURREKO	JASOTAKO DIRU-LAG.,		
	SOZIALA ETA	EKIT.	EKIT.	DOHAIN. ETA	
	ERRETSEBAK	EMAITZAK	EMAITZA	LEGAT.	GUZT
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	219.393	(121.996)	(8.407)	16.166	105.156
Aitortutako sarrera eta gastuak	-	-	(7.737)	(1.953)	(9.690)
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	2.005	(7.289)	8.407	-	3.123
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	221.398	(129.285)	(7.737)	14.213	98.589
Aitortutako sarrera eta gastuak	-	-	(7.380)	(673)	(8.053)
Funts sozialaren bariazioa	(18.970)	-	-	-	(18.970)
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	937	(8.697)	7.737	-	(23)
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	203.365	(137.982)	(7.380)	13.540	71.543

ESKUDIRUAREN BATERATUTAKO FLUXUEN EGOERA

	Euroak milakotan	
	2012	2011
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik	(7.380)	(7.737)
Emaitzari doiketak	9.669	9.706
Kapital arruntean aldaketak	(9.370)	(10.794)
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	221	470
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(6.860)	(8.355)
Inbertsioen ordainketak	(5.566)	(9.979)
Inbertsio ezagatik kobrantzak	63	26
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(5.503)	(9.953)
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak	-	(91)
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak	6.500	8.005
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	6.500	7.914
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	(5.863)	(10.394)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	(17.103)	(27.497)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	11.240	17.103



IV.2 EITB-REN ETA TALDEKO SOZIETATEEN BANAKO KONTUAK

Hona hemen 2012ko abenduaren 31n urteko kontuak, milako euroetan emanak:

BALANTZEA	Euroak milakotan			
	EITB		ETB, SAU	
	2012	2011	2012	2011
AKTIBO EZ ARRUNTA	56.954	82.663	52.369	58.264
lbilgetu ukiezina.....	528	449	7.630	8.127
lbilgetu materiala.....	-	1	44.739	50.137
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak.....	56.339	61.456	-	-
Finantza inbertsioak epe luzera.....	87	20.757	-	-
AKTIBO ARRUNTA	17.739	24.694	40.011	47.727
Izakinak.....	-	-	18.607	19.182
Merkataritza zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.....	6.521	7.556	9.089	9.886
Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak.....	-	-	12.230	18.368
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	3	60	24	5
Aldizkakotzeak.....	4	5	42	271
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.....	11.211	17.073	19	15
AKTIBOA GUZTIRA	74.693	107.357	92.380	105.991

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Euroak milakotan			
	EITB		ETB, SAU	
	2012	2011	2012	2011
ONDARE GARBIA	58.287	84.656	65.221	70.886
Funts propioak.....	57.846	84.207	52.121	57.121
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	441	449	13.100	13.765
PASIBO EZ ARRUNTA	-	-	985	1.310
Epe luzeko zorrak.....	-	-	-	-
Aldizkakotzeak epe luzera.....	-	-	985	1.310
PASIBO ARRUNTA	16.406	22.701	26.174	33.795
Epe laburreko zuzkidurak.....	-	-	922	731
Epe laburreko zorrak.....	92	-	1.350	77
Taldeko eta elkartutako enpresekiko zorrak epe laburrera.....	15.390	22.006	-	-
Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk.....	924	695	23.577	32.662
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	-	325	325
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	74.693	107.357	92.380	105.991



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB, SAU	
	2012	2011	2012	2011
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	-	-	14.004	20.350
Izakinen bariazioa	-	-	(875)	2.252
Enpresak ibilgeturako egindako lanak	-	-	325	297
Hornidurak	(234)	(45)	(41.863)	(59.367)
Bestelako ustiaketa sarrerak	6.230	4.051	97.968	111.257
Langileria gastuak	(4.203)	(4.546)	(34.123)	(37.234)
Bestelako ustiapen gastuak	(1.747)	(1.710)	(35.236)	(36.546)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(9)	(11)	(12.108)	(13.494)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea	8	8	5.465	6.785
Beste batzuk	-	(1)	-	-
USTIAKETAREN EMAITZA	45	(2.254)	(6.443)	(5.700)
Finantza sarrerak.....	66	252	104	159
Finantza gastuak eta K. aldeak.....	(20)	(25)	(11)	(99)
Baliabide finantz. besterenganatz. narriadura eta emaitza.....	(7.482)	(6.670)	-	-
EMAITZA FINANTZARIOA	(7.436)	(6.443)	93	60
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(7.391)	(8.697)	(6.350)	(5.640)
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	(7.391)	(8.697)	(6.350)	(5.640)

BALANTZEA

Euroak milakotan

	EI, SA		GI SA		EITBNET, SAU	
	2012	2011	2012	2011	2012	2011
AKTIBO EZ ARRUNTA	924	1.217	1.170	1.114	400	618
Ibilgetu ukiezina.....	9	17	-	-	362	482
Ibilgetu materiala	915	1.200	1.170	1.114	30	20
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak	-	-	-	-	8	116
Finantza inbertsioak epe luzera	-	-	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA	4.112	4.902	609	660	724	1.734
Izakinak	1	-	-	-	-	-
Merkataritza zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	1.260	1.346	274	246	343	1.357
Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak.....	2.844	3.528	328	407	380	370
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	-	-	-	-	1	1
Aldizkakotzeak	3	19	2	2	-	6
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	4	9	5	5	-	-
AKTIBOA GUZTIRA	5.036	6.119	1.779	1.774	1.124	2.352



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

Euroak milakotan

	EITB SA		GI SAU		EITBNET. SAU	
	2012	2011	2012	2011	2012	2011
ONDARE GARBIA	2.793	2.803	1.274	1.085	282	579
Funts propioak.....	2.793	2.803	1.274	1.085	282	579
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	-	-	-	-	-	-
PASIBO EZ ARRUNTA	-	-	-	-	-	-
Epe luzeko zorrak	-	-	-	-	-	-
Aldizkakotzeak epe luzera.....	-	-	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA	2.243	3.316	505	689	842	1.773
Epe laburreko zuzkidurak.....	241	770	41	171	-	1
Epe laburreko zorrak.....	1	-	16	-	18	-
Taldeko eta elkartutako enpresekiko zorrak epe laburrera..	-	-	-	-	-	274
Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk ..	2.001	2.546	448	518	824	1.498
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	-	-	-	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	5.036	6.119	1.779	1.774	1.124	2.352

GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	EITB SA		GI SA		EITBNET. SAU	
	2012	2011	2012	2011	2012	2011
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	3.559	3.890	595	645	4.319	5.890
Izakinen bariazioa	-	-	-	-	-	-
Enpresak ibilgeturako egindako lanak	-	-	-	-	-	-
Hornidurak	(2.136)	(2.411)	(212)	(225)	(2.500)	(3.191)
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	18.014	21.905	3.653	3.770	-	-
Langileria gastuak.....	(12.535)	(15.190)	(2.467)	(2.727)	(811)	(894)
Bestelako ustiapen gastuak.....	(6.649)	(7.242)	(1.397)	(1.591)	(1.138)	(2.082)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(297)	(310)	(83)	(75)	(187)	(149)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea	-	-	-	-	-	-
Beste batzuk.....	-	-	-	-	-	-
USTIAKETAREN EMAITZA	(44)	642	89	(203)	(317)	(426)
Finantza sarrerak.....	4	-	-	-	8	18
Finantza gastuak eta K. aldeak.....	-	(2)	-	(1)	-	-
Baliabide finantz. besterenganatz. narriadura eta emaitza.	-	-	-	-	(108)	13
EMAITZA FINANTZARIOA	4	(2)	89	(1)	(100)	31
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(40)	640	89	(204)	(417)	(395)
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	(40)	640	89	(204)	(417)	(395)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

Euroak milakotan

	EITB	ETB, SAU	E.I., SAU	GI, SAU	EITBNET, SAU.
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(7.391)	(6.350)	(40)	89	(417)
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak	-	4.800	-	-	-
Galera-irabazietara transferentziak.....	(8)	(5.465)	-	-	-
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(7.399)	(7.015)	(40)	89	(417)

B) ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak milakotan

	FUNTS SOZIALA ETA ERRETSEBAK	AURREKO EKIT. EMAITZAK	JASOTAKO DIRU-LAG., EKIT. EMAITZA	DOHAIN. ETA LEGAT.	GUZT.
EITB					
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	219.024	(121.941)	(7.344)	457	90.196
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(8.697)	(8)	(8.705)
Kapitalaren igoerak	3.165	-	-	-	3.165
Emaizten banaketa	-	(7.344)	7.344	-	-
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	222.189	(129.285)	(8.697)	449	84.656
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(7.391)	(8)	(7.399)
Kapitalaren igoerak	1.700	-	-	-	1.700
Funts sozialaren itzulketa	(20.670)	-	-	-	(20.670)
Emaizten banaketa	-	(8.697)	8.697	-	-
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	203.219	(137.982)	(7.391)	441	58.287

	JAULK. PRIMAREN KAPITALA ETA ERRETSEBAK	AURREKO EKIT. EMAITZAK	JASOTAKO DIRU-LAG., EKIT. EMAITZA	DOHAIN. ETA LEGAT.	GUZT
ETB, SAU					
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	175.191	(109.447)	(5.938)	15.710	75.516
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(5.640)	(1.945)	(7.585)
Kapitalaren igoerak	2.955	-	-	-	2.955
Emaizten banaketa	-	(5.938)	5.938	-	-
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	178.146	(115.385)	(5.640)	13.765	70.886
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(6.350)	(665)	(7.015)
Kapitalaren igoerak	1.350	-	-	-	1.350
Emaizten banaketa	-	(5.640)	5.640	-	-
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	179.496	(121.025)	(6.350)	13.100	65.221

.../...



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

.../...

	JAILK. PRIMAREN KAPITALA ETA ERRETSEBAK	AURREKO EKIT. EMAITZAK	JASOTAKO DIRU-LAG., EKIT. EMAITZA	DOHAIN. ETA LEGAT.	GUZT.
EI, SA					
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	14.290	(9.762)	(2.480)	-	2.048
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	640	-	640
Kapitalaren igoerak	115	-	-	-	115
Emaitzen banaketa	-	(2.480)	2.480	-	-
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	14.405	(12.242)	640	-	2.803
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(40)	-	(40)
Kapitalaren igoerak	30	-	-	-	30
Emaitzen banaketa	64	576	(640)	-	-
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	14.499	(11.666)	(40)	-	2.793
GI, SA					
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	5.406	(3.900)	(242)	-	1.264
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(204)	-	(204)
Kapitalaren igoerak	25	-	-	-	25
Emaitzen banaketa	-	(242)	242	-	-
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.431	(4.142)	(204)	-	1.085
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	89	-	89
Kapitalaren igoerak	100	-	-	-	100
Emaitzen banaketa	-	(204)	204	-	-
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.531	(4.346)	89	-	1.274
EITBNET, SAU					
2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA	900	-	4	-	904
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(395)	-	(395)
Kapitalaren igoerak	70	-	-	-	70
Emaitzaren banaketa	4	-	(4)	-	-
2011-KO URTEKO AZKEN SALDOA	974	-	(395)	-	579
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(417)	-	(417)
Kapitalaren igoerak	120	-	-	-	120
Emaitzaren banaketa	-	(395)	395	-	-
2012-KO URTEKO AZKEN SALDOA	1.094	(395)	(417)	-	282



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUEN FLUXUEN EGOERA

Euroak milakotan

	EITB	ETB, SAU	EI, SAU	GI, SAU	EITBNET, SAU
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(7.391)	(6.350)	40	89	(417)
Emaitzari doiketak	7.438	8.847	503	97	272
Kapital arruntean aldaketak	1.264	(9.597)	(1.182)	(242)	361
Eskudiruzko beste fluxu batzuk	(599)	104	4	-	8
GUZTIRA	712	(6.996)	(715)	(56)	224
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Inbertsioek erag. ordainketak.....	(1.658)	(5.322)	(3)	(123)	(60)
Inbertsio ezagatik kobrantzak	-	33	683	-	-
GUZTIRA	(1.658)	(5.289)	(680)	(123)	(60)
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	1.700	4.800	30	100	120
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak	(6.616)	7.488	-	-	(284)
GUZTIRA	(4.916)	12.288	30	100	(164)
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA					
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	(17.073)	(15)	(9)	(5)	-
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	11.211	19	4	5	-
GUZTIRA	(5.862)	4	(5)	-	-

IV.3 EITB ETA TALDEKO SOZIETATEEN AURREKONTU LIKIDAZIOA

2012ko ekitaldirako kapital eta ustiaketa aurrekontuak honako hauek dira:

KAPITALAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	EITB SAU		ETB, SAU		EI, SAU		GI, SAU		EITBNET, SAU	
	Azkena	Gauzatua	Azkena	Gauzatua	Azkena	Gauzatua	Azkena	Gauzatua	Azkena	Gauzatua
INBERTSIOAK										
Inbertsioek erag. ordainketak	1.700	1.658	6.150	5.322	30	3	100	123	120	60
Finantza pasiboko baliabideen ordaink.	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kapital zirkulatzailearen bariazioa	-	-	-	4	-	-	-	-	-	-
Truke tipoen bariazioaren eragina	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren defizita	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
INBERTSIOAK GUZTIRA	1.700	1.658	6.150	5.326	30	3	100	123	120	60
FINANTZAKETA										
Ustiaketa jardueren eskudiruzko fluxua	-	712	-	(6.996)	-	(715)	-	(55)	-	224
Ondareko baliabideeng. kobrantzak	1.700	1.700	6.150	6.150	30	30	100	100	120	120
Inbertsio ezagatik kobrantzak	-	-	-	6.172	-	683	-	78	-	(284)
Eskudiruaren murrizketa garbia	-	5.862	-	-	-	5	-	-	-	-
Finantza pasiboko baliabideen ordaink.	-	(6.616)	-	-	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren mozkina	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
FINANTZAKETA GUZTIRA	1.700	1.658	6.150	5.326	30	3	100	123	120	60



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

USTIAPENAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	EITB SAU		ETB, SAU		EI, SAU		GI, SAU		EITBNET, SAU	
	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA
GASTUAK										
Hornidurak	11	6	13.896	13.076	710	655	45	50	-	-
Beste enpresa batzuek egindako lanak	252	227	39.891	28.787	1.543	1.481	190	162	2.983	2.500
Langileria gastuak	4.589	4.203	36.829	34.122	13.283	12.535	2.611	2.468	883	811
Bestelako ustiaketa gastuak	1.532	1.747	28.151	35.236	6.605	6.650	1.461	1.396	1.534	1.138
Ibilgetuaren amortizazioa	3	9	12.655	12.108	313	297	76	83	127	187
Izakinen bariozioa	-	-	-	875	-	-	-	-	-	-
Eman beharreko diru-laguntzak	119.463	119.463	-	-	-	-	-	-	-	-
Truke aldeagatiko finantza gastuak	-	20	60	11	-	-	-	-	-	-
Ibilgetua besterentz. emaitz. narriad.	7.170	7.482	-	-	-	-	-	-	-	108
Mozkinen gaineko zerga	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren mozkina	-	-	-	-	-	-	-	89	-	-
GASTUAK GUZTIRA	133.020	133.157	131.482	124.215	22.454	21.618	4.383	4.248	5.527	4.744
SARRERAK										
Negozio zifraren zenbateko garbia	-	-	18.050	14.004	4.127	3.559	654	595	5.401	4.319
Bestelako ustiaketa sarrerak	4.029	4.175	2.982	415	-	-	-	-	-	-
Jaso beharreko diru-lag.	121.517	121.517	-	-	-	-	-	-	-	-
Ustiaketa diru-lag. emaitzetara egoztea	-	-	97.795	97.877	18.014	18.014	3.653	3.653	-	-
Izakinen baloraketa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ibilgetu ez finantzarioko diru-lag. egoztea	-	8	6.000	5.465	-	-	-	-	-	-
Finantza sarrerak	300	66	-	104	-	5	-	-	-	8
Ekitaldiko galera	7.174	7.391	6.655	6.350	313	40	76	-	126	417
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	133.020	133.157	131.482	124.215	22.454	21.618	4.383	4.248	5.527	4.744





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOAK, 2012, EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOARI ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEEI EGINDAKO IKUSKARITZAREN EMAITZAK DIRELA ETA.

A. TXOSTENAREN IRITZIARI BURUZ

II.1.1 ATALA. LANGILEEN KONTRATAZIOA

“Erakundeko eta haren sozietateetako (ETB, SAU eta Eitbnet, SAU) aldi baterako langileak kontratatzeko orduan aldeztatik osatutako lan-poltsa erabiltzen da. Poltsa horrek ez ditu hautagaien merezimenduak eta gaitasunak sailkatzen, beraz, ez du 5/1982 Legeak aurreikusitako merezimendu eta gaitasunen printzipioa betetzen denik bermatzen (ikus A.2 atala). Txosten hau egin den datan, deialdian aurkeztutako lanpostuen %95en kasuan, lan-poltsa hori eguneratzeko asmoz 2010ean hasitako LEP amaitu da”.

EITBK II.I.I ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA:

EITBn eta bere sozietateetan aldi baterako kontratazioko lan-poltsa baten existentzia eta baremazioa langile finkoentzako lan eskaintza publikoetan izandako emaitzen bidez arautzen dira. Horrela, probak plaza atera gabe gairitu dituzten hautagaiak lehenetsuak daukate EITBK eta bere sozietateek egiten dituzten behin-behineko kontratazioetan, hautaketa prozesu horretan lortutako emaitzen arabera.

Aurreko ekitaldietako auditoretzetan azaldu denez, azken urteetan Eusko Irratia sozietaterako soilik deitu dira enplegu finkoko eskaintza publikoak. 2012-12-31n, gainerako sozietateetarako eta, horrenbestez, gainerako profil profesionaletarako dauden hautagaiak eguneratu eta barematu ahal dituen enplegu eskaintza publikoa amaitzeke dago, HKEEaren txostenak azaltzen duenez. Hala eta guztiz ere, jakinarazten dugu 2013ko ekitaldian aipatutako hautaketa prozesua amaitu dela. Horrenbestez, behin-behineko kontratazioen lan-poltsa bertan lortutako emaitzen arabera barematuta geratzen da.

2.- “5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duen 4/1996 Legearen 1.2 artikulua zuzendari nagusiari eskumena ematen badiu ere «erakunde publikoko eta bere sozietateetako zuzendaritza-langileak irizpide profesionalak baliatuta izendatzeko, aldeztatik izendapen horien berri administrazio kontseiluari emanaz», egia da ere zuzendaritzako langilearen figura ez dagoela zehaztuta.

Ordea, 5/1982 Legearen 47n artikulua adierazten duenez, erakunde publikoko eta bere sozietate publikoetako langileak laneko legerian xedatutakoaren arabera eraenduko dira (47.1 art), baina era berean, “erakundeko eta bere sozietateetako langileen aukeraketa deialdi publikoaren bidez egingo da, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioetan oinarritutako sistemekin bat etorriz” (47.2 art).

130/1999 Dekretuari jarraikiz, EITBK «Goi Karguetan» lau pertsona ditu izendatuak eta gainera, kargu horietarako Goi Zuzendaritzako kontratua derrigor baliatu behar dela ezartzen du.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2012ko ekitaldian 3 pertsona sartu dira zuzendaritza postu funtzionaletan, “profesionaltasuna” kontzeptua aplikatuz (kontzeptu hori erakundea sortzeari buruzko legean, lehen aipatutako 4/1996 Legeak aldatua, 16. artikuluan, aipatzen da). 3 kasu horietan ez zegoen erakundearekin inolako kontratu-harremanik eta ez dira agertzen goi kargu gisa. Halere, lan-kontratu finkoak egin zaizkie; beraz, 5/1982 Legearen 47. artikulua ez da bete”.

EITBK II.I.2 ATALARI BURUZ EGINDAKO ALEGAZIOA:

Zuzendaritza-karguen kontratazioari dagokionez, gai honetan HKEEaren 2009ko ekitaldiko auditoretza-txostenean aurkeztu ziren alegazio xehe eta oinarrituak errepikatzen ditugu. Alegazio horiek 2010eko eta 2011ko ekitaldietako alegazioetan mantendu ziren. Alegaziotan, laburbilduz, EITBk ezadostasun partzialak zituen HKEEk defendatutako irizpidearekin. Ezadostasun horien jatorria, batez ere, estatuko nahiz EAEko erakunde eta sozietate publikoetako zuzendaritza-langileei aplikatu beharreko estatus juridikoan dagoen hutsune legala da. Hutsune juridiko hori behin eta berriro agerian utzi dute araudiak berak, lan arloko eta administrazioarekiko auzietako epaitegi eta auzitegiek, eta gaian onartutako doktrinak. HKEE horren guztiaren jakitun da, beraz, ez dugu sakondu nahi.

Nolanahi ere, 2011ko ekitaldiko HKEEaren txostenari egindako alegazioetan azaldu genuenez, EUSKAL IRRATIA TELEBISTA erakunde publikoaren gaur egungo zuzendaritza nagusiak, 2013. urteko lehen hiruhilekoan izendatua izan zenetik eta postuaz jabetu zenetik aurrera, zenbait neurri hartu zituen, antolaketa izaerakoak, EITBren eta bere sozietateen zuzendaritza-langileen estatus juridikoa hobeto arautzeko, HKEEaren irizpideak eta gomendioak betez. Hauek dira neurriak, laburbilduta:

- . EITBren eta bere sozietateen zuzendaritza-organigrama murriztea.
- . Plaza finkorik ez daukaten zuzendaritza-langileak konfiantzazko behin-behineko langiletzat jotzea. Beraien kontratu-egoera beraiek izendatu dituen Zuzendaritza Nagusiaren agintaldiari lotuta dago, administrazio publikoetan gertatzen denaren antzean. Haien estatus legala “goi kargutzat” jo ohi diren zuzendaritza-langileenarena da, gaiko araudi zehatzarekin bat etorritz.
- . Dagoeneko ez da egiten plaza finkorik ez daukaten pertsonen kontrataziorik EITBren eta bere sozietateen zuzendaritza-karguetarako merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako deialdi publikoaren bidez.

Eredu berri hori EITBko Administrazio Kontseiluari proposatu zion erakunde publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, HKEEak iradokitako baldintzetan, eta HKEEak onetsi egin zuen.

II.2 ATALA.- URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

“Gure iritziarengan eraginik izango ez badu ere, zera azpimarratu nahi dugu: Euskal Irrati Telebista/EITB Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa sortzen duen 5/1982 Legearen 45. artikulua dio erakundea eta mendeko dituen sozietateak,



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
